

# TOLOSALDEKO hitza info

Ostirala, 2013ko irailaren 13a. IX. urtea. 2.643. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)



Haztegiatako lehen enpresa egitasmoak egiten ari diren lau ekintzaileak. ITZEA URKIZU

## Aitziber Ibarbia eta Leire Agirrezabala nor baino nor ariko dira Espainiakoan

Mendi lasterketen koparen azken proba dago jokoan etzi; Hassan Ait Chaou ere izango da **07**

## Espainiako Pistako Txirrindulari probara doaz lau txirrindulari

Ane Iriarte, Nahia Dominguez, Maddi Amunarriz eta Jon Irisarririk hartuko dute parte gaurtik igandera bitarteko probetan **06**

## Irura eta Aduna lotuko dituen bidegorria eraikiko dute Villabonan

Lau fasetan banatuko da proiektua eta datorren ostegunean herritarrei nondik norakoak azaltzeko bilera egingo du udalak **04**

## III. Mendi Duatloi proba hartuko du Ibarrak, bihar arratsaldean

Proba herrikoia 16:00etan hasiko da, eta luzea 16:10ean; gaztetxoak goizean ariko dira lasterka eta bizikletan **03**

## Tolosaldeko enpresa berritzaileenak lanean, Lehiberriko haztegietan

Ekintzaile eta enpresa berrien lehen pausoak babesteko sortu dituzte, Lehiberrin, haztegiak; zazpi bulegotatik hirutan abian dira jada hainbat proiektu berritzaile, eta beste laurak ideiez bete nahi dituzte **02**

2.000 laguntzaile baietz!

Laguntzeko prest?

Eman zure izena.

[www.kilometroak.net/izenemate](http://www.kilometroak.net/izenemate)



**matrikula**  
irailak 2 -13

bulego ordutegia  
09:00 - 13:00 / 16:00 - 19:00

**Aitzol**  
**Udal Euskaltegia**  
Rondilla 34-B 3.  
20400 TOLOSA  
tel.: 943651006 / 943652343

Tolosaldeko ekintzaileei bultzada bat emateko egitura fisikoa eskaintzen dute Lehiberri zentroko haztegiak. Zazpi bulegotatik hiru, ideia berrien sorleku dira jada.

# Haztegiak, ideia jaio berrien habi

## Itzea Urkizu

**A**zken urteotan ekonomia-egoera kaskarrak guztia baldintzatzen duela dirudi: enpresak ixtea, langabezia, honen ondorioz datoen desjabetzeak, Krisi garaiei ideia eta proiektu berriak ematen dituzten eragileak, eta eskualdekoak dira ekintzaile horietako asko. Lehiberri zentroak, bere lan lan ildo nagusien artean, martxan jarri berri ditu eskualdeko enpresa eta ekintzaile berrientzako haztegiak; jaio berri diren egitasmoentzako habi izango dira, eta beren jarduna garatzeko bideak irekiko dizkiete.

Haztegi hauek, finean, enpresen egitasmoak kokatzeko leku fisikoa eskaintzen diete ekintzaileei, oinarritzko baliabideekin batera. Zazpi bulegotatik hirutan ideia berriak martxan dira jada, lau lanpostu berri sortuz. Marka estrategia eta diseinua, on-line bidezko sukaldako tresnen salmenta eta ekitaldi eta jardueren antolakuntza nahiz kudeaketa dira, Lehiberri abian jarritako hiru proiektu berrien lan esparruak, eta ekintzaileen gaztetasuna azpimarratzeko da.

«Ideia onak dituen eskualdeko

jendeari lagundu nahi diogu, eta Lehiberri horretarako tresna da», azaldu du Ibai Iriarte Lehiberriko lehendakariak. Tolosaldeko hutsuneak bete, teknologia berriekin batera lan egin eta eskualdean lagungarri izan daitezkeen ideiak beharrezkotzat jo ditu Iriartek, eta gaur egun haztegiak dauden hiru egitasmoak aho batez onartuak izan zirela nabarmendu du: «Uztaileko adminis-

**Zazpi haztegitatik hirutan lanean ari dira jada; beste laurak bete nahi dituzte orain**

**Idea eta proiektu berriak ematen dituzte orain**

trazio kontseiluan baiezkotzea eman genien denok hiru enpresei».

Horren harira, haztegiak badiutuzte zenbait helburu zehatz: enpresa berriak sortu eta finkatzea nahi dute, batetik, eta horrekin batera lanpostu berriak sortzea; azpiegitura fisikoa eskaintzea, gainera, enpresaren leihakortasun aukera handiagotzea da jomuga



Bulegoetan oinarritzko hornidura eskaintzen die ekintzaileei, Lehiberri zentroak. | URKIZU

nagusetako bat. Tolosaldea Garatzenek bi hamarkada daramatza jardun honetan, eta enpresen aholkularitzan, bideragarritasunean, finantziario nahiz presakuntzan egindako lanarekin, «azken hamar urteotan 300 mikroenpresa martxan jarri dira eskualdean, 500 lanpostutik gora sortuz», Tolosaldea Garatzeneko autoenpleguko Jon Zubeldia arduradunak azaldu duenez.

Urte horietan guztietan egin dako lan horren gainean, ordea, balio erantsia dute Lehiberriko haztegiak, eta «azpiegitura fisikoa baino zerbait gehiago dira». Bi lanpostutarako egokituriko bulegoak dira, eta enpresentzat bi bilera gela ere badira, bezero,

hornitzaile nahiz kolaboratzaileekin elkartzeko. Haztegi bakoitzak, gainera sarbide independentea du, eta 24 ordu sartzeko aukera dute ekintzaileek.

Honez gain, sinatu berri duten alokairu hitzarmenaren bidez zentroko teknikarien aholkularitza, doako Wifia, berogailu eta aire egokituan geotermia sistema, argindarraren kontsumoa eta zentroko azpiegituren erabilera eskainiko dizkiete enpresariei. Azkenik, aipatzekoa da bulegoen alokairua hobariduna izango dela, eta gehienez ere hiru urtez erabili ahal izango dituztela.

Jon Zubeldiak azaldu duenez, bulegoetako lanpostu konpurtua nahiz haztegi kopurua eskualdean

aztertu ondoren erabakitakoa da: «Tolosaldearen ezaugarriak eta eskualdeko mikroenpresenak ezagutu, bi lanposturako zazpi haztegi egokitzea erabaki genuen».

Honenbestez, Lehiberri zentroko arduradunak hutsik dauden beste lau haztegiak egitasmo berriekin betetzeko gogoz daudela azpimarratu dute. Kutsu berriak ematen diren proiektu edo jardueren bila dabilta, eta horretan ari den eskualdeko jendea animatu nahi izan dute; Lehiberri zentroarekin harremanetan jarri besterik ez da egin beharko, [lehiberri@lehiberri.net](mailto:lehiberri@lehiberri.net) helbidera idatzita.

• [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

## ↓ Haztegitako lehen enpresa egitasmoak

**Chroma Branding.** 23 urte dituzte Juan Urretabizkaia eta Iker Alkorta, eta marka estrategia eta diseinuan espezializatutako enpresa berritzaileak sortu dute. Markak sortu eta kudeatzen dituzte, enpresa, merkataritza eta ostalarientzat nahiz erakunde publiko eta pribatuentzat. [www.chromabranding.com](http://www.chromabranding.com) da web ataria.

**Menajeando.com.** 35 urte ditu Nerea Puentek, eta teknologia berrietan oinarritutako e-commerce proiektua da berea. Sukaldarako tresnak on-line salduko ditu, lehen mailako markekin lan eginez, eta norbanako partikularrei nahiz ostalaritzako sektoreari begira sortu du enpresa. [www.menajeando.com](http://www.menajeando.com) da bere erakuslelhoa.

**Bizzia.com.** Gemma Zelaiak 29 urte ditu, eta ekitaldien antolaketaz eta kudeaketaz arduratuko den enpresa sortu du. jardunaldiak, hitzaldiak, ikastaroak, tailerrak, kirol ekitaldiak eta halakoak diseinatu eta kudeatzen ditu, hezkuntza zentro, kirol talde, udal nahiz partikularrentzat. Bere berri izan daitezke [www.bizzia.com](http://www.bizzia.com) atarian.

**www.inmosalbide.com**

**SALBIDE**  
Higazten jarritak

**Aia.** Urtebete Auzoan. 120m<sup>2</sup>-ko berritzaile (4 gelako etxebizitza) eta 17.500m<sup>2</sup>-ko terranoa. Oso polita. **Prezio onenak 240.405 euro!**

**Aizarnazabal.** 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onenak. 24.500.000 pezeta.

**Zarauz.** Vista Alegre. 87m<sup>2</sup>. 3 logela, 2 bainugela, terraza (9m<sup>2</sup>). **282.476€ euro!**

**Zarauz.** Arizbasalde. 3 logelako, 2 bainugela terraza eta trastelekuak. Oso egoera onenak. Altua eta eguzkitasun. 75.000.000 pezeta!

**Zarauz.** Añe zaharretan. Logela bateko etxebizitza. **156.253 euro!**

**Zarauz.** Arizbasalde plazan. 3 logelako etxea (87m<sup>2</sup>) + trastelekuak (11m<sup>2</sup>) + garaje itxia (20m<sup>2</sup>). 61.562.820 pezeta. Oso prezio onenak.

**Zarauz.** Mixelena Kalea. 3 logela, 2 bainugela, terraza eta trastelekuak. Ilogelako eta gara. **352.425€ euro!**

Bizkaia kalea, 6 - 20800 Zarauz - Tel: 943-01 07 00 - Mug: 665-71 85 96

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA**  
**ETA KULTURA SAILA**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## ↓ Iragarki laburrak

### LAN BILA

**Ettxeko lanak.** 08:00etatik 14:00etara ettxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, espezializazio handia duen emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Kotxea ere badauka, gainera. Interesa duen edonork dei dezala ondorengo bi telefono zenbakietako batera: 943 69 68 82 edo 606 52 19 92.



Pasa den urteko duatloi probako une bat, Ibarrako plazan. I.T.

## Euskal Herriko Zirkuituari hasiera emango dio bihar, Ibarrako III. Mendi Duatloiak

Proba luzea eta herrikoia izango dira arratsaldean, eta gaztetxoenei zuzendua goizean egingo dute

**Iñigo Terradillos** Ibarra

Mendi duatloia hartuko du hirugarren urte Ibarrak, bihar arratsaldean. Sendi Ekintzak eta Ibarra Kirol elkarteak antolatzen duten probak, berrikuntza moduan, adin tarte guztiek parte hartzeko aukera zabalduko du aurten. Proba 16:00etan hasiko da Ibarrako plazan.

Bi proba desberdin dituzte, bata luzea, eta bestea herrikoia. Luzean parte hartuko duten kirolariak 16 urtetik gorakoak izango dira, eta 16:10ean irtenko dira. Horiek pasa den urteko ibilbidea osatu beharko dute: lehendabizi 5,78 kilometro egingo dituzte lasterka; ondoren, bizikletaz 15 kilometro; eta, amaizeko, 2,89 kilometro lasterka. 14 urtetik 16 urtera bitartekoek parte hartzeko aukera jarri dute aurten. Horiek 16:00etan irtenko dira, eta proba luzearen erdia egin beharko dute.

Pasa den urtean Jon Erguin beasaingarrak irabazi zuen, bigarren Unai Yus gasteiztarra izan zen, eta hirugarren, Luis Mari Iriazar billabonatarra. Bi emakumek hartu zuten parte, eta batek lortu zuen amaiztea, Amaia Luquin erreteriarra. Lehen ibartarra,

aurreko urtean bezala, Luis Lasa izan zen. Juan Zubia antolatzaile taldeko kideak adierazi duenez, oraindik euren parte hartzea zehaztu gabe dagoen arren, aurten ere maila handiko kirolariak izatea espero dute. «Hala ere, kirolari orori dago irekia proba, eta denak animatzen ditugu parte hartzea», adierazi du.

Hala, lehenengo probak 125 parte hartzaile izan zituen, eta iaizkoak 142. Aurtengorako, berriaz, 70 lagun inguruk eman dute aurrez izena, eta pasa den urteko kopuru antzekoa izatea espero dute. Aurtengo parte hartzaileei dagokionez, ibartarren kopurua azpimarratu du Zubia: «Ibarrako 20 pertsona inguruk dagoeneko eman dute izena; gainerakoan, gehienak gipuzkoarrak izaten dira, baina Gipuzkoaz kanpoko askok ere parte hartzen dute».

Izena ematea errazte aldera hainbat modu jarri dituzte aurten. Sarean egin daiteke ([www.mendiduatloia.com](http://www.mendiduatloia.com)), mahaiak jarri dituzte Ibarrako plazan, eta egunean bertan izena emateko aukera dago. Prezioan bada alderik, baina, izan ere, aurrez izena emateagatik 15 euro ordaindu behar da, eta egunean, 20 euro.

Ikusmin handia piztu du probak aurreko urteetan, eta herriar ugari hurbildu da plazara ikustera eta kirolariak animatzera, giro polita sortuz. Bada, aurtengoan, «giro on horrekin jarraitzeko» parrilada egingo dute sari

### ↓ Datuak

- **Proba luzea.** 16:10. 16 urtetik gora. 6 km + 15 km + 3 km.
- **Proba herrikoia.** 16:00. 14-16 urte. 3 km + 7,5 km + 2 km.
- **Izen ematea.** Aurrez ([mendiduatloia.com](http://mendiduatloia.com)), 15 euro. Egunean, 20 euro.
- **Gaztetxoentzako proba.** 11:00. 7-13 urte. Doan.

banaketarekin batera, sagardo kupel eta guzti.

Bestalde, Euskal Herriko Mendi Duatloi Zirkuituaren barruan kokatzen da Ibarrako proba. Hain zuzen ere, Ibarrako lasterketarekin emango zaio hasiera zirkuituari. Orotara, 10 proba izango dira, eta abenduaren lehen Zubieta egingo denarekin bukatuko da. Eskualdean ere izango da beste probarik, Amasan, azaroaren 3an. Proba guztietan batzen diren puntuetatik erabakiko dira irabazleak, eta aurten, baldintza moduan, proba guztietan parte hartzea jarri dute antolatzaileek.

### Gaztetxoentzat, goizean

Egun osoan izango da bihar duatloia Ibarran. Izan ere, 7 eta 13 urte bitarteko gaztetxoentzat, 11:00etan jarri dute proba antolatzaileek. Parte hartu nahi dutenek hasi baino lehen azaldu beharko dute plazara, eta ez dute ordaindu beharrik izango. Iazko proban 50 neska-mutil aritu ziren lasterka eta bizikleta gainean.



Ahetze Arratibel izan zen pasa den urteko irabazlea. HITZA

## Jubenil mailako San Bartolome Saria izango da etzi

Ibarra Kirola Elkarteak antolatuta, 32. urtea du aurten; 75 kilometroko ibilbidea izango da, eta 10:00etan hasiko da

**I. Terradillos** Ibarra

Egun aldaketarekin dator aurtengo San Bartolome txirrindularitza Saria. Abuztuan egin ohi zena, aurten irailera atzeratu beharra izan dute, antolaketa arazoak tarteko, eta etzi, igandean izango da, 10:00etan hasita.

Lasterketa beteteranoa da Ibarra Kirol Elkarteak antolatzen duen San Bartolome Saria, 32. urtera iritsi baita dagoeneko. Jubenil mailako txirrindulariek hartzen dute parte, eta 75 kilometro luze-rako ibilbidea egin beharko dute. Ibarrako Euskal Herria kalean izango du irteera eta helmuga.

Tartean, Tolosa, Lizartza, Tolosa, Ibarra, Tolosa, Alegia, Amezketa, Alegia, Ikaztegieta, Legorreta, Itsasondo, Ordizia, Itsasondo, Legorreta, Ikaztegieta, Alegia, Altzo, Tolosa, Leaburu eta Belauntza igaro beharko dituzte parte hartzaileek helmugara iristeko. Bi orduko iraupena beharko dute la txirrindulariek aurrekusten dute antolatzaileek.

Pasa den urteko irabazlea Caja Rural taldeko Ahetze Arratibel izan zen, eta taldeka Cartonajes Limousin izan zen garailea. Parte hartzaile kopuruari dagokionez, egunean bertan azaltzen diren taldeen arabera izango da, horregatik ez dakite ziurtasunez zenbatekoa izango den.

Bestalde, Ibarra Kirol Elkarteak lasterketan zehar laguntzeko prest agertu diren bazkideen kopurua nabarmendu du, eta motozaleen eta duatloiko antolatzaileen laguntza ere eskertu du.

## Lauburu areto futbol taldeak denboraldi berriari ekingo dio bihar

Madrilgo Inter Movistar taldearen aurka jokatuko du, Belabieta kiroldegian, 18:00etatik aurrera

**I. Terradillos** Ibarra

Bihar hasiko da Bigarren B maila Nazionaleko denboraldi berria Ibarrako Lauburu areto futbol taldearentzat. Madrilgo Inter Movistar taldearen aurka jokatu

dute lehen partida. Etxean jokatu dute ibartarrek, Belabieta kiroldegian, 18:00etan hasita.

Aitor Arevalo entrenatzaileak adierazi duenez, «ilusio handiarekin» ekingo dio denboraldi Lauburu. «Liga polita izango da eta lehia bizia nagusituko da, taldeen artean oreka handia baitago», adierazi du.

Bestalde, taldetik gogoratu dute bazkide egiteko aukera zabalik dagoela. 30 euro kostako da, eta bazkide direnek doan joan ahalko dute partida guztietara.



# Gipuzkoako bidegorrien sarearekin bat egingo du Amasa-Villabonak

Irura eta Adunako bidegorriak lotuko ditu Amasa-Villabonako ibilbideak, eta lau fase izango ditu

Mikel Iraola Amasa-Villabona

Amasa-Villabonan bidegorria egiteko proiektua martxan jarriko da datozen asteotan. Modu horretan, Gipuzkoako bidegorri sarearekin bat egingo du, Irura eta Adunako bideak lotuz.

Dagoeneko proposatu dute bidegorriaren ibilbidea. Herri guztia bidegorritik zeharkatzeko aukera emango du, inongo momentuan errepidera irten behar izan gabe, eta lau fase izango ditu.

Lehen fasea, Agaraitz auzotik, Adunako zubitik kale nagusira bitartekoa da. Lehen fase horren erdia egina dago dagoeneko, eta Kale Berrian sartzean, bidegorria erreka ondotik desbideratuko da. Zati horretan, espaloia eraikiko dute bizikletentzat.

Bigarren fasea alde zaharra Kale Nagusitik barrera alderik alde zeharkatzen duena da. Ibilbide zati hau mistoa izango da, hau da, oinezkoekin batera ibili beharko dute.

Hirugarren zatia, Gaztelekutik hasi eta Errota auzoa zeharkatuz, Arroa auzoraino doana da. Lehen



Kale Nagusia zeharkatuko du bidegorriak, eta zati hori mistoa izango da. 16.

fasean bezala, hemen ere errepide eraikiko da.

Eta azken fasea, berriz, Iruratik, 34. industriagunea zeharkatuz Arroa auzora doana da. Ibilbide hori egina dago jada.

Herriarrei proiektuaren inguruko argibide gehiago eman eta ekarpenak jasotzeko asmoz, bileta irekia antolatuko du udalak datorren ostegunera. Hitzordua, 19:30ean izango da, Gaztelekuan.

# Kirol ikastaroetan izena emateko epea zabalik da

Urriaren amaierara bitarte egongo da izena emateko aukera, eta horretarako kiroldegitik pasatzea beharrezkoa da

M. Iraola Ibarra

Urriaren hasiko dira Ibarra Bela-bieta kiroldegiko ikastaroak, eta dagoeneko zabalik da horietan izena emateko epea.

Ordutegi eta egun anitzeko orotariko ikastaroak eskainiko ditu kiroldegia, hala nola, gimnasia, cycling-a, Tai-Chi-a edo Yoga.

Izena emateko epea ikastaroak hasten diren egunera arte izango da zabalik. Horretarako, interesatuek, kiroldegitik bertatik pasa beharko dute, fitxa bat bete beharko baita. Informazio gehiagorako, [kirolibarra@yahoo.es](mailto:kirolibarra@yahoo.es) helbidera idatzi edo 943671544 telefono zenbakira deitu daiteke. [ibarraldea@hitza.info](mailto:ibarraldea@hitza.info)

## ↓ 2013-2014 ikasturteko eskaintza

### BELABIETA KIROLDEGIKO IKASTAROKAK

- **Multifitnes eta Cycling.** Astearte eta ostegunetan 11:00etan, edo astelehen eta asteazkenetan 20:00etan. Hiru hilabeteko prezioa bazkideentzat 66,04 eurokoa da; ez bazkideentzat, berriz, 90,98 eurokoa.
- **Pilates.** Astearte eta ostegunetan 10:00etan eta 19:30ean. Hiru hilabeteko prezioa bazkideentzat 66,04 euro; ez bazkideentzat, berriz, 90,98 euro.
- **Gimnasia 3. adinekoentzat.** Astearte eta ostegunetan goizeko bederatzietan. Ikastaroa doakoa da guztientzat.
- **Yoga.** Astelehen eta asteazkenetan, 11:00etan. Hiru hilabeteko prezioa bazkideentzat, 64,08 euro; ez bazkideentzat, berriz, 90,98 euro.
- **Abdominalak eta hipopresio-**

**boak.** Astelehen eta asteazkenetan, 18:30ean eta 20:00etan. Ordu erdiko saioak dira. Hiru hilabeteko tarifa bazkideentzat 33,02 eurokoa da. Ez bazkideentzat, berriz, 45,49 eurokoa.

■ **Cycling.** Astelehen eta asteazkenetan 19:00etan; edo astearte eta ostegunetan lau ordutegi ezberdinetan, 09:30ean, 18:30ean, 19:30ean edo 20:30ean. Hiru hilabeteko prezioa bazkideentzat 66,04 eurokoa da; ez bazkideentzat, berriz, 90,98 eurokoa.

■ **Tai-Chi.** Astelehen eta asteazkenetan 20:00etan, edo asteazken eta ostiraletan 09:30ean. Hiru hilabeteko tarifa bazkideentzat 64,08 eurokoa da; ez bazkideentzat, berriz, 90,98 eurokoa.

■ **Bosu-Gap eta Cycling.** Astelehen eta asteazkenetan, 15:15ean. Hiru hilabeterako prezioa 66,04 eurokoa da bazkideentzat; ez direnentzat, berriz, 90,98 eurokoa.

**Egin HITZAREN HARPIDEDUN**  
irailaren 1etik urriaren 31ra arte, ETA JASO:

**OLASAGASTI kontserba produktu sorta**  
[www.conservasolasagasti.com](http://www.conservasolasagasti.com)

Harpidedun egiten diren guztien artean **SEGORE ETXEBERRI nekazal turismoa, bi lagunentzako asteburu baterako egonaldia\*** **ZOZKATUKO DUGU**  
\*Ostiral gauetik, igande goizera PENTSI OSONAN.

Harremanetarako: 902 82 02 01 [harpidetza@hitza.info](mailto:harpidetza@hitza.info) **hitza**

# Errebotearen inguruko argazki lehiaketa antolatu du Behar Zanak

Urriaren 13an amaituko da argazkiak bidaltzeko epea, eta irabazleak bazkari edo afari bat irabaziko du

M. Iraola Amasa-Villabona

Enrique Abril errebote txapelketa jokatzen hasi zela 50 urte bete dira aurretik. Hori dela eta, kirol modalitate honen inguruko II. Argazki Lehiaketa antolatu du Behar Zana elkarteak. Edonolako argazkiak bidal daitezke, beti ere errebotearen ingurukoak.

Lehiaketan parte hartu nahi dutenek, [beharzana@gmail.com](mailto:beharzana@gmail.com) helbidera euren datuak bidali beharko dituzte. Beharrezko datu horiek, izen-abizenak, nortasun agiria eta telefono zenbakia dira. Ondoren, lehiaketako oina-



Errebotearen inguruko argazkiak bidali beharko dira. LURRUTIA

rialiko korreo elektronikoki bitartez bidaliko zaizkie parte hartzaileei.

Argazkiak urriaren 13ra bitartean bidal daitezke, eta irudi hoberearen egileak, Benta Aldea Bodegoian bi pertsonentzat bazkari edo afari bat irabaziko du. Bigarrenak, berriz, Gopar-en produktuez osatutako otar bat jasoko du. Gainera, partaideentzat opari sorpresa bat izango da.

Bestalde, igande honetan Enrique Abril txapelketa bigarren jardunaldiko bi partida jokatu dira Amasa-Villabonako plazan. Lehena, Zaharrer Segi eta Kapito Harri taldeen artekoa izango da, 09:30ean. Bigarrenean, Behar Zana eta Luzaz Gazte izango dira nor baino nor. Partida hau 11:30ean hasiko da.

[villabona-aiztondo@hitza.info](mailto:villabona-aiztondo@hitza.info)

## Gipuzkoako pilota txapelketa gaur iritsiko da gurera

Intxurre, Aurrera-Saiaz eta Zazpi Itturriko pilotariek partidak jokatu dituzte gaur eta bihar

A. Imaz

Intxurre Pilota Eskolako pilotariek ezker hormako partidak jokatu dituzte gaur, hilak 13, Alegiako pilotalekuan. Jaialdia 19:00etan hasiko da, eta guztira hiru partida ikusteko aukera egongo da. Lehen lehia Intxurrekoak Intzakoen aurka ariko dira, kadete mailan eta binaka. Ondorengo lehia, Intxurrekoek Ziotzako bikoteari egin beharko diote aurre. Hau ere kadete mailako partida izango da. Pilota jaialdiko azkena, ordea, jubenilei dagokien lehia izango da. Kasu ho-

netan, etxeko pilotariek Zestoa 2-ren aurka neurtuko dituzte indarrrak.

Intxurre Pilota Eskolatik azaldu dutenez, Intxurre 3 taldea txapelketatik ateratzea erabaki dute. Jubenilen partida izan ezik, beste bi partidak lehenengo faseko lehiak izango dira. Jubenilei dagokiena, B faseko lehia izango da.

### Aurrera Saiazeko partidak

Aurrera Saiazek ere haste honetan ekingo die Gipuzkoako txapelketako partidei. Amezketan, etxeko taldearen aurka jokatu dute gaur 21:00etan. Bixintxo-Arratibel irtenko dira kantxara Aurrera Saiazen aldetik. Nagusien mailan, Artola-Telleteak larunbatean jokatu dute Tolosako Beotibar pilotalekuan, Soraldiko bikotearen aurka. Lehia 11:00ean hasiko da.

## Euskal Azokan parte hartzeko deia herritarrei

A. Imaz Ikaztegieta

Ikaztegieta Euskal Azoka antolatzen hasiak dira, eta lehenik eta behin, herritarrei luzatu diete deialdia: «Aurten urriaren 5ean izango da, eta herritarrak gonbidatu nahi ditugu euren produktu, eskulan eta abarrekin postua jartzera». Antolatzaileen esanetan, postu txikia edo handia izan, interesgarriak guztiak dira. Azokan parte hartu nahi dutenek, 943 65 33 29 zenbakira deitu behar dute, irailaren 23a baino lehen. Azokara baserriarrez jantzita joan behar dela ere esan dute antolatzaileek.

Bestalde, egun horretan txekor jatea egingo dute Ikaztegieta, eta txartelak erosteko azken egu-

na irailak 27a izango da, Toki Alai eta Ostatuan. Txekorra prestatzeko boluntarioak behar direla ere argitu dute, eta horretarako herritarrei deialdia egin diete. Laguntzeko prest dagoenak 943 65 33 29 telefono zenbakira deitu behar du.

### Erretirodunentzako irteera

Lizarra eta Iruñea ezagutzeko irteera antolatuko dute Ikaztegieta, erretirodunentzat. Irailaren 19an, ostegunean egingo dute txangoa. Lizarran azoka ikusi eta Iruñean bazkaltzen geratuko dira. Izena emateko epea hilaren 16an, astelehenean, amaituko da. Ikaztegieta udaletxean eman behar da izena, 25 euro ordaintzarekin batera.

## Bedaioko jai «jendetsuekin» Artubi elkarteko kideak «oso pozik» agertu dira

Irailaren 29an, hileko azken igandean, Zaldi Raid proba lehiatuko da Bedaion; lanak aurreraturik dituzte

Asier Imaz Bedaio

Artubi Kultur Elkarteko kideak «oso pozik» agertu dira Bedaioko Jaiek izan duten erantzunarekin. Haur, gazte nahiz heldu, jai «jendetsuak» izan direla azaldu dute Artubiko kideek, eta eskerrak eman nahi izan dizkie «laguntza ixil eta handia eman duten bedaiotarrei, eta hauen ondoan egon diren jende guztiari». Jaiak amaitu ondoren, hurrengo hitzordua irailaren 29an izango dela gogoratu dute, hain zuzen ere, egun horretan Bedaion Zaldi Raid-a egingo da, eta Artubitik azaldu dutenez, prestaketa lanak «nahiko aurreratuak» dituzte.

Iragan ostiralean hasi ziren festa Bedaion. Lehen egunean zahagi ardoak arrakasta handia izan zuela aipatu dute Artubikoek, baita beste ekitaldiek ere. Bigarren jai eguna hurren eguna izan zen. «Xirimiri txikia izan bazen ere, haur ugari bildu zen Bedaion», esan dute Artubitik. Aurtengo ekitaldia desberdina izan zela ere gaineratu dute: «10-16 urtekoentzat zezentxoak eta poneiak izan ziren Larrañetako zelailan, eta txikienentzat frontoian pintura saioa egon zen». Iluntzean, Bedaioko gazteek «lan azkar batean», herri afarirako dena prest utzi zuten. Mahaiairen bueltan jende ugari elkartu zen, eta ondorengo jokoetan, Gurbil Han-



Igandeko protagonistak: Irigoien eta Enaitz. PATXI RENOBALDES

diko Patxi izan zen irabazlea, berak asmatu baitzuen lau artaburutan zeuden 2.000 arto ale kopurua. Ordainetan, urdaiazpiko bat eman zuen etxera.

Hirugarren eta azken egunean, igandean, kirola izan zen jaun eta jabe Bedaion. XXIV. Txirindulari Igoeran 40 partaide irten ziren, eta iaz bezala, Iban Eskisabel tolosarra izan zen garaile, 15 minutu eta 6 segundoko denborarekin. Arratsaldean marka jarri zuena Aimar Irigoien harri jasotzailea izan zen. *Manterola* harri berezia 21 aldiz jaso zuen errezildarrak

hiru minutuko txandan. Aizkolaria ere izan ziren, eta hauen artean, 8 urteko Enaitz ibili zen. Artubikoen esanetan, «saio polita eta gogorra egin zuen, plaza gizona dela erakutsiz». Herri kirolen ondoren, jaietako zozketa egin zen, eta 315 zenbakia atera zuten. Abate jateko afaria zozkatu zen, eta irabazlea Etxeberri etxeko Iñaki izan zen.

Azkenik, jaien antolatzaileek aipamen berezia egin nahi izan diote hain eurena duten ekitaldi kuttun bati, hau da, Bedaioko Ingurutxoari.

**Akademia Pausoka**  
Matrikulatu zaitez!

Martin J. Iraola. 2 - behea  
20400 TOLOSA (Gipuzkoa)

943 24 91 61  
886 971 962

**19-90**

Euskal Herria plaza, 5 • TOLOSA • Tel.: 943 119 017



# Espainiako txapelketan, eskualdeko lau

Gaurtik igandera bitarte pistako txirrindulari probak jokatu dira Madrilen, eskualdeko ordezkariak dira.

**Asier Imaz**

Espainiako Pistako Txirrindulari Txapelketa jokatu da asteburuan Galapagar-en (Madrid, Espainia). Tolosaldeko lau txirrin-

dulari gazte egongo dira bertan, ostiraletik igandera bitarteko probetan duten guztia ematen. Maddi Amunarriz, Nahia Domingez, Jon Irisarri eta Ane Iriarteri dominaren batekin itzultzea gustatuko litzaieke, baina ez da lan erraza izango.

Pistako txapelketa batean proba ugari izaten dira, eta txirrindulari bakoitzak batean baina gehiagotan parte hartu izan ohi du. Jon Irisarri leaburutarrak adibidez bost probatan hartuko

du parte, baita Ane Irisarrik ere. Bi txirrindulari hauek badakite zer den Espainiako txapelketan dominak irabaztea, eta aurren, aurreko urteetan lortua errepikatu nahiko dute. Horrez gain, estatu osoko txirrindularien maila gertutik ikusteko aukera izango dute, eta baita lehiatzeko modu desberdinetaz ikasteko parada ere. Urte guztian egindako lanaren emaitzak jasotzeko ordua iritsi zaie eskualdeko lau txirrindulariei.

**Ane Iriarte** • Txirrindularia

## «Urte guztiko lana islatuko da hitzordu honetan»

**A. Imaz** Amasa-Villabona

Laugarren Espainiako txapelketa du Ane Iriartek (Amasa-Villabona, 1995). Aurreko guztietan beti lortu du etxera dominarekin itzultzea, eta aurtengoa ere, antzeko helburuekin joan da Madriler. Bidaieri herenegun ekin zion. Probak gaur hasiko direnez, tartean egun bat behintzat izan du atsedean hartzeko.

**Zein da zure helburua txapelketa honetan?**

Lan ona egiteko helburuarekin noa. Udara guztia entrenatzen pasatu dugu, eta orain, ea emaitzak iristen diren.

**Zein probatan hartuko duzu parte?**

500 metrokoan, skrachean, puntuazioan, banakako jarraipenean eta taldekako abiaduran.

**Horrelako txapelketa batek zein ezaugarri ditu zuretzat?**

Hitzordu honetan urte guztiko lana islatzen da, eta ondorioz, ahalik eta hobekien prestatzen saiatzen zara. Aurren, Europako txapelketak izan ditugu aurretik, orain arte ez bezala. Madrilen, beste proba batean, beharrezko denborak egin behar izan genituen, Europakora joateko. Orain arte alderantziz izaten zen, Espainiako txapelketak zenituen denbora horiek lortzeko, eta lortuz gero, Europako txapelketara joaten zinen. Kontua, beharrezko gutxiengo denbora hori lortu nituela, eta uztailen Portugalen izan nintzela Europako txapelketetan. Denboraldiko helburua hori zen, eta hori pasata, orain Espainiakoak etorri dira.

**Nekatuta iritsiko zinen, beraz.**

Europakoak amaitu ondoren, in-dar handirik gabe egongo nintzela pentsatzen nuen. Denboraldia



HITZA

urrian hasi nuen, eta ia urtebete pasa da. Portugaleten denboraldia bukatzen zela ere pentsatu nuen, baina psikologikoki behintzat ongi ikusi naiz, eta indartsu nagoela uste dut.

**Zein da zure orain arteko palmarsa?**

Lehen urtean skrachean urrea lortu nuen. Bigarrenegun, puntuazioan eta taldekako abiadura proban dominak irabazi genituen, eta iaz, taldekakoan marka jarzea lortu genuen.

**Zein proba duzu gustukoena?**

Jazarpen proban adibidez denbora oso onak lortu nituen Madrilen. Puntukoak ere gustukoak dut, eta 500 metrokoan ere ongi ibiltzen naiz. Taldekako abiadurakoan, Ziortza Isasirekin gustura ibiltzen naiz, eta ea iazkoa errepikatzen dugun.

**Eskualdeko txirrindulariako nola ikusten dituzu?**

Lan ona egiteko aukerak dituzte. Jon azkarra da, eta horrez gain, iraupena duela erakutsi du. Borrokan ibiliko da. Maddiren lehen urtea da, eta ezustekoren bat eman lezake. Nahia ere lan ona egiteko aukeran dago.

**Jon Irisarri** • Txirrindularia

## «Gehienbat abiadurakoa eta madisona gustatzen zaizkit»

**A. Imaz** Leaburu

Madrilen dago Jon Irisarri (Leaburu, 1995), Espainiako Pistako Txapelketa noiz hasiko zain. Leaburuko gazteak bere hirugarren Espainiako txapelketa jokatu du asteburu honetan, eta abiadura proban jarriki ditu esperantzak, aurreko urteetako garaipenak buruan dituela.

**Zein probatan hartuko duzu parte?**

Madison modalitatean, kilometro bateko distantzian, skrachean, abiadura proban eta taldekakoan.

**Zein proba dira zure gustukoak?**

Gehienbat abiadurakoa eta madisona.

**Madisona nolako proba da?**

Bi txirrindulariren artean egiten da, elkarri eskutik helduta erreleboak emanaz. Guztira 120 itzuli izaten dira, eta 20 itzuliro puntuak banatzen dira.

**Emaitzak iritsiko al dira?**

Abiadura proban adibidez irabaztera aterako naiz; madisonean podiuma lortzen baldin badugu, gustura.

**Entrenamenduak nola antolatatu dituzu?**

Aurre denboraldi guztia pistan egin dut, eta gero errepedean ibili naiz. Azken bi hilabeteetan, berri-



HITZA

ro, pistara itzuli naiz txapelketa hau prestatzen ari zena.

**Donostiako belodromoan zenbat ordu sartu dituzu azken bi hilabete hauetan?**

Entrenamenduak normalean astean bitan egin ditugu, eta hiru ordu inguruko iraupenekoak izan dira.

**Nola aurkitu duzu zure gorputza?**

Hasieran ez nuen hain ongi ikusten, baina orain hobeto sentitzen naiz, gustura nago.

**Ikasketak, entrenamenduak, ... nola moldatu zara?**

Batxilerra egiten ari naiz, eta egunak ikasketen eta bizikletaren artean joan zaizkit. Ahal izan dudana guztia zaintzen saiatu naiz.

**Nahikoa laguntza izaten al duzue horrelako txapelketa batetara joateko, adibidez.**

Alde horretatik gustura gaudu. Beste autonomia erkidego bazuetan baina laguntza gehiago ematen digu guri federazioak: bizikletak uzten dizkigute, materiala ematen digute, entrenamenduak dohainik egiten ditugu, masajista bat jartzen digute... nahikoa laguntza jasotzen dugu. **Bizikletak aipatu dituzula. Zein desberdintasun dago pistakotik errepedikora?**

Pistakoez ez dute kanbiorik, ezta frenurik ere, eta pinoi bakarrekak dira. Gurpilak, aldiz, berdinak dituzte.

**Errepedean denboraldia ia amaitu da. Nolako balantzea egiten duzu?**

Gustura nago, bost lasterketa irabazi baititut. Hala ere, gogorra izan da, eroriko dezente izan baititut aurren. Horietako batean lepa-uztaia hautsi nuen. Alde horretatik denboraldi iluna izan da, baina emaitzen aldetik ona.

**Buruan duzun une bat?**

Lepa-uztaia hautsi eta itzuli nintzanean korritu nuen lasterketa. Tafallan izan zen, eta garaipena lortu nuen. Momentu oso berezia izan zen, izugarriko morala eman baitzidan.

## XVII. HITZA Udako Argazki Lehiaketa



Bidali zure argazkia  
thargazkiak@hitza.info  
helbidera!

**1. Saria**

Bermeoko **Lurdeia landetxean**, bi pertsonentzako asteburu osorako egonaldia.

**2. Saria**

Tolosako **Beti-Alai jatetxean**, bi pertsonentzako asteburuko otordua.

**3. Saria**

**Txindokiko Itzala** abentura parkerako bi sarrera.



# Ibarbia eta Agirrezabala, mendi lasterketen Espainiako Koparen bila

La Sagra Sky Race proban parte hartuko dute etzi, kopako azkena; bertan izango da Ait Chaou ere

**Imanol Garcia Landa**

Mendi lasterketan Espainiako Kopako podiumean eskualdeko bi korrikalari izan daitezke, eta goiko bi postuetan gainera. Aitziber Ibarbia zizurkildarra eta Leire Agirrezabala ibartarra Euskal Selektzioarekin lehiatuko dira igandean Granadan (Espainia) jokatu den La Sagra Sky Race proban. Hassan Ait Chaou billabonatarra ere gizezkoen mailan lehiatuko da, baina podiumeko postuak urrutiago ditu. Eskualdetik joango den beste korrikalaria Nerea Amilibia zizurkildarra da, baina ez du parte hartuko proban, orain gutxi zaldi batetik erori eta femurrean mina hartu eta gero. Halere, koparen beterranoen podiumean izateko aukerak ditu Amilibiak.

La Sagra Sky Race koparen laugarren proba da eta beste hirurak baino %20 gehiago balio du puntuaketa. Jasotako hiru puntukopuru handienak kontuan hartzen dira azken sailkapenerako. Aitziber Ibarbia egun laugarren postuan dago, 176 punturekin, bi probetan bakarrik lehiatu eta gero: Kantabrian eta Zumaian jokatuakotan bigarren egin zuen. «Gustura nago orain arte egindakoarekin; ea azkenekoa nola ateratzen den, kopa irabazteko aukerak ere baditudalako», esan du Ibarbiak. «Leire ere hor dago, eta nik uste dut bietan lasterketa onena egiten duenak irabaziko duela kopa».

Igandeko probak 27,5 kilometro ditu, 2.180 metro igotzen dituz-



Leire Agirrezabala korrikalari ibartarra. HITZA

te eta 1.750 metro jaitsi. Ibarbiak uste du berarentzako egokia dela lasterketa: «30 kilometrotik gora larriago aritzen naiz. Muga horretatik behera hobeto moldatzen naiz. Granadako niretzat aproposa da, dituen kilometro kopuruarengatik, goraka beheraka baina hobeto aritzen naiz, eta jaitziera badu zati bat tekniko xamarra eta hori ez da ona Leirerentzako».

## Amilibia, pena handiarekin

Leire Agirrezabala berria da mendi lasterketen txapelketetan, baina oso indartsu sartu da. Leitzan jokatu zen Euskal Herria Mendi Erroka lasterketa irabazi zuen, eta Euskal Selektzioarekin parte hartzeko gonbitea jaso zuen. Bi probetan parte hartu du: Lanzarotekoan bosgarren egin zuen eta Zumaiaikoan lehenengo postuan amaitu zuen. «Ez nuen espero aukerarik izatea; hala ere, uste dut irabazi egin beharko dudala kopa eskuratu ahal izateko», azaldu du Agirrezabalak.

Probaren perfilarengatik, Agirrezabalak berarentzat egokia ikusten du igandeko proba, baina arriskuren bat ere ikusten du: «Jaitziera pixka bat teknikoak

dira eta ez dakit nola aterako den. Aldapa gora ahal dena eman eta gero ikusiko dugu». Ibarbiaren eta Agirrezabalaren aurkaririk nagusiena Eva Maria Moreda da. Hiru probetan hirugarren egin du eta sailkapenean lehenengo postuan doa.

Nerea Amilibiak pena handia du ezingo duelako parte hartu azkeneko proban. Orain arte hirugarren doa sailkapen orokorrean, baina igandeko proban ez denez lehiatuko, lehenengo postuei ezingo die eutsi. «Nire helburua beterranoetan irabaztea zen, eta ikusiko dugu Elena Calvillo taldekideak zer egiten duen», azaldu du Amilibiak. «Ziurrenik berak irabaziko du eta ea ni ere podiumera igotzen naizen orain arte lortutakoarekin». Amilibiak Granadara joateko asmoa du, Euskal Selektzioarekin parte hartuko du.

Hassan Ait Chaouk ere Euskal Selektzioarekin parte hartuko du. Dagoeneko hiru proba jokatu ditu eta seigarren postuan dago sailkapen orokorrean, 5., 13. eta 6. egin ondoren. Granadako proban aurreko postuetan sartu beharko du egungo sailkapena hobetu nahi badu.

## Irudia ◊ Tolosa



## PREBENTZIOA LANTZEN

Gazteek Kilometroak bezalako jaietan eta gaurko gizartean duten alkohola eta drogaren kontsumoaz kezkatuta, KMK13ren antolakuntza urtean zehar lanketa burutzen ari da Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuen eta Agipad elkartearen laguntzaz. Irailan zehar hainbat saio izango dira gai honen inguruan eta herenegun izan zen lehena gazteen gurasoekin (irudian). 18an eta 25ean beste bi saio izango dira gurasoentzat. Tabernariekin eta boluntarioekin ere egingo dituzte saioak. INIGO ROYO

## → Laburrak

### Intxurre herriko taberna irekiko dute asteburuan

**TOLOSA** » Urritik aurrera 80 euskal herritar baino gehiago epaituko dituzte, haietatik 40 herriko tabernen auzian daude, eta 110 herriko taberna ixteko arriskuan daude. Bestalde 40 gazte «beraien militantzia politikoagatik» espetxeratutako izateko arriskuan dira. Hau dela eta, irailaren 13an eta 14an Tolosako Intxurre herriko taberna zabalduko da elkartasuna adierazteko.

### Beasaingo Estanda enpresan langile bat hil da

**TOLOSA** » Lan istripua izan zen atzo arratsaldean Beasaingo Estanda galdategian. 58 urteko ordiziarra da hildakoa, baina Tolosan bizi zen. Makina batek azpian harrapatu zuen langilea, matxeria arloan, eta uanean bertan hil zen.

### Hirigintza batzordearen bilera, astelehenean

**AMEZKETA** » Hilaren 16an, astelehena, Hirigintza-Obra, Kultura eta Ingurumena batzordearen bilera egingo dute udaletxeko osoko bilkura aretoan, 20:00etan. Besteak beste, ondorengo gaiak eztabaidatuko dira: obra txikiak, Elizondo etxearen estalki azpiko solairuan bizitegi erabilera eman ahal izateko aukeren inguruko hirigintza kontsulta, eta San Bartolome 19ko fatxadak berri-tzeko baimen eskaera.

### '77' diskoa aurkeztu du Bide Ertzean taldeak

**TOLOSA** » Bide Ertzean taldeak 77 diskoa aurkeztu du. «1977. Euskal Herria. Askatasuna, mailatasuna, berdintasuna bizi eta gozatu nahi duen gazteria. 40 urteko gau beltzaren ondoren, orduko gazte belaunaldi haren ahalegina ez zen hutsala izan. Lan berri honetan, 70eko hamarkadan ipini dugu begi-puntua», diote taldekideek.

## ◉ Hilberriak eta urteurrenak

## ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



I. URTEURRENA

## JOXE ROMAN ZABALA LABAKA

(2012ko irailaren 15ean hil zen, 89 urte zituela)

*atta, urtia pasa da baña segizazu  
Muxetegi aldia zaitzen, azpikaldian denak  
hor gabiltza eta... izan zaitte gure itzai. Besarkada bat.*

Bere emazteak eta sendi guztiak, bere animaren alde otoiitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzetela datorren igandean irailak 15. goizeko 10:30tan Errezilgo San Martin Deunaren parroki elizan egingo den elizkizunera. Aldez aurretik mila esker.

**Helbidea:** Lizarreta Baserria (Errezil)

ERREZIL, 2013ko irailaren 13an



23°  
15°

GOIZA	OSTARTEAK
ARRATSALDEA	LAINOTUA
BEROENA	24°
HOTZENA	16°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Eneritz Maiz  
**Egoitza:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95.  
**Faxa:** 943 65 00 18  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa.  
**Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona-aiztondo:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hermialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## XVII. Udako Argazki Lehiaketa



## LORE, GATZ ETA HILERRIEN BEREZITASUNA

Lehen argazkia Emilio Aldazabalek bidali du, eta Britainian atera du udan. Ibai Agirrek Añanako gatzagetan ateratako argazkia bidali du: «urak tantarik tanta gatzeko zintzilarioak egiten ditu denboraren poderioz», azaldu du. Jose Angel Ar-


tutxak Normadian ateratako argazkiarekin parte hartu nahi izan du: «Il. Mundu Gerrako amerikarraren hilerri hau aurkitu genuen. 9000 gurutze inguru daude», dio. Bidali zure udako argazkia [thargazkiak@hitza.info](mailto:thargazkiak@hitza.info) helbidera. ALDABAL/AGIRRE/ARTUTXA

## Agurrak



### Zorionak Maren!

**Maren Ayerza Labaien (Amezqueta).** Bihar 5 urte! Muxu handi bat etxekoen partetik eta bereziki Amalurren partetik.



### Urte askoan!

**Maddi Lopetegi Serrano (Ordizia).** Bihar 11 urte! Zorionak eta muxu asko familia guztiaren partetik.

### Zorionak amatxo!

Ondo pasa zure eguna, eta ea bisitatxoren bat egiten diguzun!

## Farmaziak

### GAUR

■ **Tolosa.** Egunekoa: Olarreaga, 1. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 67 01 28. Gauekoa: Etxebeste, J.M. Gernikako Arbolarren lorategiak, 3. Telefonoa: 943 65 10 40.

### BIHAR, HILAK 14

■ **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Morant, R. Zabalarreta lorategiak, 1. Tfnoa: 943 67 38 49.

### ETZI, HILAK 15

■ **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Bengoetxea, E. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48.

### ETZIDAMU, HILAK 16

■ **Ibarra.** Egunekoa eta gauekoa: Lejeune, L. Euskal Herria kalea, 46. Telfnoa: 943 67 32 74.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

## Agenda

### GAUR

**JAIK**  
■ **Alegia.** Kalebehera auzoko jaiak hasiko dituzte 19:00etan, suziri eta buruhandiekin.

### BIHAR, HILAK 14

■ **Amasa-Villabona.** Azoka Berrezia, 10:00etatik 14:00etara, Txermin ikastolako arkupetan.

**JAIK**  
■ **Alegia.** Kalebehera auzoko jaiak 12:00etan hasiko den kro-sarekin.  
■ **Tolosa.** Ugane auzoko jaiak egun osoan zehar.

### IGANDEA, HILAK 15

### ZINEMA

■ **Tolosa.** Leidorreko zine aretoan, 17:00etan, *Monstruos University* filma ikusi ahal izango da, eta 19:30ean, *La mejor oferta* eskainiko dute.

**JAIK**  
■ **Alegia.** Kalebehera auzoko jaiak, 12:00etatik aurrera.